

Martin Garitano Larrañaga  
Ikerne Badiola Garciandia  
Jaione Isazelaia Igartua  
Carlos Ruiz González  
Araceli Gómez Fernández (bideokonferentzia  
bidez), Tomas Fernández García jaunaren  
ordez  
Iñaki Esparza Leibar  
Luis Elicegui Mendizabal

**Bileran egon da baita ere:**

Juan José Álvarez Rubio

**BERGARAKO UNED  
FUNDAZIOAREN  
PATRONATUAK 2014ko  
APIRILAREN 3an  
GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIAREN  
JAUREGIAN EGINDAKO  
BILERAREN AKTA**

2014ko apirilaren 3an, goizeko 9:30ak direlarik, zerrendatu diren Patronatuko kideak elkartu dira, GAI ZERRENDA hau dutelarik:

1. 2013ko azaroaren 8ko bilerako akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
2. Bergarako UNED Fundazioaren 2013ko ekitaldirako aurrekontuaren likidazioa onartzea, hala badagokio.
3. Bergarako UNED Fundazioaren 2014 ekitaldirako aurrekontua onartzea, hala badagokio.
4. Eskariak eta galderak.

**1º) Aurreko akta.**

Patronatuaren 2013ko azaroaren 8ko bileraren akta onartu da.

**2º) Bergarako UNED Fundazioaren 2013ko ekitaldirako aurrekontuaren likidazioa onartzea, hala badagokio.**

2013 urteko aurrekontuaren deskargua aurkeztu da, onartua izan dadin; ondoren, Alvarez jaunak azaldu du zein izan ziren egindako aurrekontu aurreikuspena, hasierako tutoretza murrizpena eta ondoren izan zen gorakada, zeinak eragin baitu aurtengo defizita. Orobat, kide ekarpen batzuen atzerapena azaldu du.

Ruiz jaunak Kutxa Fundazioak ekarpenak egiteko arazoen berri eman du. Konpondu dira, eta orain, atzerapenarekin bada ere, ekarpenari aurre egiteko moduan dago, eta 2013rako hitzartuta zuen zenbatekoa estaliko du.

Badiola andreak dio aurkeztu den likidazioak ez dituela argi azaltzen Kutxa Fundazioaren ekarpenetan izan diren gorabeherak, eta likidazio dokumentuan abenduaren 31n zegoen egoera eta oraingoa islatu behar direla; ondorioz, erabaki da horretarako behar adina iruzkin sartzea likidazioan.

Horiek Horrela, Patronatuko Batzordeak erabaki du 2013ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Horrekin batera, Akta sartu da 1. Eranskin gisa, behin adierazitako iruzkinak sartuta. Honela laburbiltzen da:

|   |                     |
|---|---------------------|
| Diru sarrera eta ekarpenak                              | 1.009.412,69 €      |
| Gastuak eta zuzkidurak                                  | 1.067.689,95 €      |
| <u>Guztira</u>  | <u>-58.277,27 €</u> |
| Aurrekontu Arruntaren Ekitaldiko Emaitza: -58.277,27 €. |                     |

### **3º) Bergarako UNED Fundazioaren 2014 ekitaldirako aurrekontua onartzea, hala badagokio.**

UNED-Bergara Fundazioaren 2014 urterako aurrekontua aurkeztu da onar dadin. Gastuak 1.103.426,60 euro dira eta kontzeptuengatik aurreikusten diren diru sarrerak 553.198,60 euro, beraz, Patronatuko-kideek egin beharreko ekarpena 550.228,- euro izango da.

Zuzendariak zehaztasunez azaldu ditu, batetik, hainbat partidetan egin ahal izan diren taxutze txikiak, eta, bestetik, aurrekontu handitzea tutoretzetarako aurreikusitako zenbatekoa eguneratuta; horrela, iaz onartutakoari jarraipena eman zaio.

Ruiz jaunak azaldu du Kutzak 2014ko ekitaldirako aurreikusitako ekarpenak bere egiten dituela, baina adierazi du hori ez duela artean Batzar Nagusiak onartu eta, ondorioz, berresteke dagoela.

Batzordeak, 2014 urterako aurrekontua eta Patronatuko-kideek egin beharreko ondorengo ekarpenak onartu ditu:

|                 |        |             |
|-----------------|--------|-------------|
| Foru Aldundia   | 63,61% | 350.000,- € |
| KUTXAK          | 26,39% | 145.205,- € |
| Bergarako Udala | 10%    | 55.023,- €  |

Onartutako 2014ko Aurrekontuaren kopia akta honi erantsi zaio, **2. eranskin gisa.**

#### **4º) Eskariak eta galderak.**

##### **Telesforo Aranzadi Ikastola Cooperativa Elkartearen eskaera.**

Patronatu honek 2011ko martxoaren 30ean erabaki zuen Telesforo Aranzadi Ikastola Kooperatiba Elkarteari lagatzea Bergarako Errege Mintegia finkaren zati baten erabilera, data berean onartu ziren kontratuan eta planoetan zehaztutako baldintzen arabera.

Eraikinean espazio gehiago izatea behar dutenez, Telesforo Aranzadi Ikastola Kooperatiba Elkarteari eskatu dio Patronatuari behar dituen obrak egiteko, hain zuzen ere, behe solairua egokitzeko, goiko solairuak moldatu eta instalazio orokorrak berritzeko, ikastolako sarrerak birmoldatzeko eta kirol gun bat eraikitzeko, horren guztiaren aurrekontua 2.703.827,75 euro izanik.

Kontuan hartuta obra horiek lagatutako instalazioen egoeran eta balioan eragin positiboa izango dutela, Patronatuko Batzardeak erabaki du baimena ematea Telesforo Aranzadi Ikastola Kooperatiba Elkarteari aurreko paragrafoan azaldutako obrak egiteko.

Halaber, baimena ematen zaio Iñaki Esparza Leibar zuzendariari obra berria Jabetza Erregistroan inskribatzeko beharrezkoak diren agiriak firmatu ditzan.

##### **Eskerrak ematea.**

Puntu honetan, Araceli Gómez andreak, UNEDeko Zentralaren izenean, eskerrak eman nahi dizkie patronoei egungo egoera ekonomikoan Bergarako zentroak jarrai dezan egiten ari diren ahaleginagatik.

**Eta beste gairik ez zegoenez, lehendakariak amaitutzat eman du bilera 10:45ean, eta nik, idazkariak, ziurtatu egiten dut.**



D. Martin Garitano Larrañaga  
D<sup>a</sup> Ikerne Badiola Garciandia  
D<sup>a</sup> Jaione Isazelaia Igartua  
D. Carlos Ruiz González  
D<sup>a</sup> Araceli Gómez Fernández (por  
videoconferencia) en representación de D.  
Tomás Fernández García.  
D. Iñaki Esparza Leibar  
D. Luis Elicegui Mendizabal

**Asiste también:**

D. Juan José Álvarez Rubio

**ACTA DE LA REUNIÓN  
DEL PATRONATO DE LA  
FUNDACIÓN U.N.E.D.  
BERGARA, CELEBRADA  
EL DÍA 3 DE ABRIL DE  
2014, EN EL PALACIO DE  
LA DIPUTACIÓN FORAL  
DE GIPUZKOA.**

Siendo las 9:30 horas del día 3 de abril de 2014, se reunieron los miembros del Patronato, detallados al margen, con el siguiente **ORDEN DEL DIA:**

1. Lectura y aprobación, si procede, del acta de la reunión del día 8 de noviembre de 2013.
2. Aprobación, si procede, de la liquidación correspondiente al presupuesto de la Fundación UNED Bergara del ejercicio 2013.
3. Aprobación, si procede, del presupuesto de la fundación UNED Bergara para el ejercicio 2014.
4. Ruegos y preguntas.

**1º) Acta anterior.**

Se aprueba el Acta de la reunión del Patronato de 8 de noviembre de 2013.

**2º) Aprobación, si procede, de la liquidación correspondiente al presupuesto de la Fundación UNED Bergara del ejercicio 2013.**

Se presenta para su aprobación el descargo del presupuesto del año 2013, y el Sr. Álvarez explica la previsión presupuestaria que se realizó, la inicial reducción de tutorías y su recuperación posterior lo que ha provocado el déficit que presenta este

ejercicio, explica también el retraso en el ingreso de alguna de las aportaciones de los patronos.

El Sr. Ruiz da cuenta de los problemas que ha tenido la Fundación Kutxa para realizar sus aportaciones, que ya se han solventado y que ahora, aunque con retraso, van a poder atender, cubriendo la cantidad comprometida para el ejercicio de 2013.

La Sra. Badiola plantea que la liquidación presentada no refleja con claridad suficiente las incidencias habidas con la aportación de la Fundación Kutxa y que en el documento de liquidación debe quedar reflejada la situación a 31 de diciembre y la actual, por lo que se aprueba introducir las aclaraciones precisas en el mismo.

Por todo ello, la Junta del Patronato acuerda aprobar la liquidación del Presupuesto del año 2013, que se acompaña al Acta como **Anexo nº 1** una vez incorporadas las aclaraciones señaladas, y que ofrece el siguiente resumen:

|                               |                      |
|-------------------------------|----------------------|
| Total ingresos y aportaciones | 1.009.412,69 €       |
| Total gastos y provisiones    | 1.067.689,95 €       |
| <u>Total</u>                  | <u>- 58.277,27 €</u> |

Resultado Ejercicio Presupuestario Ordinario -58.177,17 €.

### **3º) Aprobación, si procede, del presupuesto de la fundación UNED Bergara para el ejercicio 2014.**

Se presenta para su aprobación el presupuesto de la Fundación UNED-Bergara para el año 2014, los gastos ascienden a la cantidad de 1.103.426,60 euros, siendo los ingresos previstos por distintos conceptos de 553.198,60 euros, por lo que la aportación de los patronos será de 550.228,- euros.

El Director explica en detalle los pequeños ajustes que se han podido realizar en distintas partidas así como el incremento del presupuesto al actualizar el importe previsto para las tutorías, dando continuidad a lo aprobado el año pasado.

El Sr. Ruiz explica que Kutxa asume las aportaciones previstas para el ejercicio 2014 pero indica que no ha sido aprobado por la Asamblea General por lo que queda pendiente de ratificación.

La Junta aprueba el presupuesto para el año 2014 y las siguientes aportaciones de los patronos:

|                   |        |             |
|-------------------|--------|-------------|
| Diputación Foral  | 63,61% | 350.000,- € |
| KUTXA             | 26,39% | 145.205,- € |
| Ayunt. de Bergara | 10%    | 55.023,- €  |

Se acompaña a la presente Acta copia del Presupuesto para el año 2014 aprobado, como **Anexo nº 2**.

#### **4º) Ruegos y preguntas.**

##### **Solicitud de Telesforo Aranzadi Ikastola Cooperativa Elkartea.**

Con fecha 30 de marzo de 2011 este Patronato acordó la cesión a Telesforo Aranzadi Ikastola Kooperatiba Elkartea del uso de parte de la finca Real Seminario de Bergara, conforme a las condiciones fijadas en el contrato y planos aprobados en la misma fecha.

Como consecuencia de la necesidad de disposición de mayor espacio en el edificio, Telesforo Aranzadi Ikastola Kooperatiba Elkartea ha solicitado a este Patronato permiso para llevar a cabo las obras que precisa, las cuales consisten en la adaptación de la planta baja, acondicionamiento de plantas superiores y reforma de instalaciones generales, de remodelación de los accesos a la Ikastola y construcción de un espacio deportivo, todo ello con un presupuesto de 2.703.827,75 euros.

Teniendo en cuenta que estas obras repercuten positivamente en el estado y valor de las instalaciones cedidas, la Junta del Patronato acuerda autorizar a Telesforo Aranzadi Ikastola Cooperativa Elkartea la ejecución de las obras descritas en el párrafo anterior.

Asimismo, se autoriza al Director D. Iñaki Esparza Leibar para la firma de los documentos oportunos a efectos de la inscripción de la obra nueva en el Registro de la Propiedad.

##### **Agradecimiento.**

En este punto, Dña. Araceli Gómez quiere manifestar el agradecimiento de la UNED Central a los Patronos por el esfuerzo que están realizando para mantener la continuidad del Centro Asociado de Bergara en la difícil situación económica actual.

**Y no habiendo más asuntos que tratar el Sr. Presidente levanta la sesión, siendo las diez horas y cuarenta y cinco minutos, lo que yo, Secretario, certifico.**

